

**EITB MEDIA. S.A.U.-ren “*EMISIO
ARDURADUNA*” LAN POLTSAKO PROBEN
OINARRIAK**

AURKIBIDEA

Sarrera

1. Argitalpenak: deialdiaren argitalpena, prozesuari eta erreklamazio prozedurari buruzko argitalpenak.

2. Izena emateko prozedura.

3. Lanpostuaren profila: lanpostuaren deskribapena eta eginkizun/zeregin orokorrak.

4. Betekizunak.

4.1. Betekizun orokorrak

4.2. Berariazko betekizunak

4.2.1. Titulazioa.

4.2.2. Hizkuntza-eskakizunak.

4.2.3 Gidabaimena.

5. Egin beharreko probak.

6. Emaitzak.

7. Kontratazioa.

8. Deialdiaren datuak babestea eta kudeatzea.

9. *Eranskinak*

1. Eranskina. Deialdian IZENA EMATEKO gida espezifiko.

2. Eranskina. Gai-zerrenda

SARRERA

Oinarri hauen xedea da EITB MEDIA SAUren " *EMISIO ARDURADUNA* " kategoriako lan-poltsarako probetarako deialdia egiteko arauak ezartzea.

Lan-poltsaren deialdi honetatik eratorritako emaitzak baliozkoak izango dira " *EMISIO ARDURADUNA* " kategoriako aldi baterako kontratazio-beharrak betetzeko soilik, eta ez dute inolako eraginik izango plantillan finkotasuna lortzeko.

Lan-poltsa honen baremazioa egiteko, horretarako egiten diren proben emaitzak hartuko dira kontuan, aplikatu beharreko lan-poltsaren araudian ezarritako irizpideen arabera.

Alde horretatik, lan-poltsarako proben deialdi honen ondoriozko aldi baterako kontratuak lan-kontratudunak izango dira, eta lan-zuzenbide arrunta eta aplikatzekoa den Euskal Telebistaren hitzarmen kolektiboa aplikatuko zaizkie, aplikatzekoak diren arau eta printzipio orokorrei kalterik egin gabe.

1. ARGITALPENAK: DEIALDIAREN ARGITALPENA, PROZESUARI ETA ERREKLAMAZIO PROZEDURARI BURUZKO ARGITALPENAK

Lan-poltsako proben deialdia EITBren web orrian argitaratuko da: <https://www.eitbtaldeia.eus/deialdi-publikoa.php>. Bitarteko horren bidez kudeatuko dira proben garapenarekin lotutako argitalpen eta komunikazio guztiak ere.

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, prozesuan onartutako eta baztertutako pertsonen behin-behineko zerrenda argitaratuko da.

Erreklamazioak aurkezteko eta eskabideetan egon daitezkeen akatsak zuzentzeko 3 egun naturaleko epea emango da, zerrenda argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Erreklamazioak aurkezteko epea igaro eta erreklamazioak ebatzi ondoren, deialdian onartutako eta baztertutako pertsonen behin betiko zerrenda argitaratuko da.

2. IZENA EMATEKO PROZEDURA

Parte hartu nahi dutenek izena emateko eskabide bat aurkeztu beharko dute parte hartu nahi duten deialdi bakoitzeko. Onartzeko eta, hala badagokio, bertan parte hartzeko, beharrezkoa izango da:

- Hautagaitza behar bezala inskribatzea EUSKAL IRRATI TELEBISTA erakunde publikoaren webgune korporatiboan <https://www.eitbtaldeia.eus/deialdi-publikoa.php>, oinarrietan deskribatutako baldintzen arabera.
- Izena emateko inprimakiari eskatutako dokumentazioa eranstea, PDF formatuan, deialdiko baldintzak betez.

EITBk beretzat gordetzen du hautagaiak aurkeztutako dokumentazioaren egiazkotasuna egiaztatu eta egiaztatzeko eskubidea, dagozkion legezko ondorio guztiekin.

Ez dira onartuko beste edozein bidetatik jasotako eskabideak. Era berean, atzera botako dira oinarri hauetan eskatzen diren baldintzak betetzen ez dituzten hautagaiak.

Izena emateko **eskabideak aurkezteko epea 2026ko irailaren 9an hasten da, 13:00etan, eta 2026ko irailaren 23an amaitzen, 13:00etan, biak barne.**

Izena emateko eskabidea aurkezteak esan nahi du hautagaiak onartu egiten dituela lan-poltsarako proba hauen oinarriak.

Izena emateko eskabidearen atal hauek bete beharko dira:

- a) Datu pertsonalak: izen abizenak, NANA eta jaioteguna.
- b) Harremanetarako datuak: telefono mugikorra eta helbide elektronikoa.
- c) Egiaztatutako titulazio akademikoa.
- d) Egiaztatutako hizkuntza-eskakizuna
- e) B gidabaimena, egiaztatuta.

1.ERANSKINEAN berariazko gida bat dago, oinarri hauen hautaketa-prozesuan izena emateko.

3. LANPOSTUAREN PROFILA: LANPOSTUAREN DESKRIBAPENA ETA EGINKIZUN/ZEREGIN OROKORRAK

Lanpostuaren deskribapena:

Profesional honek aldeztu aurretik ezarritako programazioa prestatu eta antolatzen du, moldaketa posibleak kontrolatu eta egiten ditu, emisioaren jarraitutasuna eta ordutegiak bermatuta eta beharrezko txostenak eginda.

Zeregin orokorrak:

- Behar besteko aurrerapenaz moldatzea aurreikusitako emisioa.
- Pentsari programazioaren inguruko informazioa ematea beste komunikabide batzuetara zabal dezaten.
- Programazioa astebeteko aurrerapenarekin berrikustea, programa, artxibo eta produkzioko arduradunei emisioaren berri emanaz.
- Departamentu guztiekin harremanetan egotea emisioan parte hartzeko. Horretarako, bere ardura diren datuen berri emango die eta haiengandik jasoko ditu programaren zirriborroa egiteko beharrezko materiala eta informazioa. Lan horretan, emititzeko falta den edozer material eskatuko dute eta haren jarraipena egingo dute, programen arduradunen eta/edo produktoreen erantzukizunaren kalterik gabe.
- Programaren fitxa jasotzea eta sistematikoki erregistratzea.
- Emankizunen jarraipena: emankizun bat badago, aurretiazko plan bat egingo da eta horrek programazioan eragin ditzakeen aldaketak egingo dira.

- Egun batzuetako aurrerapenarekin prestatzea programazioaren ordutegi zehatza.
- Harremanetan egotea ETBko emisioaren sustapenaren arduradunarekin.
- Eguneko emisioen zirriborroa egitea eta parte-hartzaileei entregatzea.
- Akats edo hutsune posibleak aurreikustea eta programa alternatiboak prestatzea.
- Emisio-zinten jarraipena egitea emisioa eman arte eta ondoren artxibora itzultzea.
- Emisioaren, jarraitutasunaren eta ordutegiaren gaineko ardura, baita eman beharreko kapituluak egokiak direla bermatzekoa ere.
- Zuzeneko programen eta emankizunen jarraipena.
- Programak eman ahala doitzeta eta aldaketak sartzea ezustekoak daudenean.
- Emisio-protokoloa idaztea, emisioaren intzidentzien berri emanez.
- Protokoloa aztertzea eta egunero artxibatzea.
- Emititutako zintak erregistratzea.
- Estatistikak egitea (egunekoak, astekoak, hilekoak eta urtekoak).
- Minutuen eguneroko banaketa eta protokoloa egitea.
- Txandaka eta departamentuko arduradunaren aginduz, emisioaren arduradun batek emisioaren koordinatzailearen lanak egingo ditu, hots, departamentuko arduradunaren eta emisioaren arduradunaren arteko lotura-lanak egingo ditu. Koordinatzailearen egitekoa da eguneko programazioa egin, prestatu eta aurreikustea departamentuko arduradunak emandako irizpideen arabera eta hark eskuordetzen dizkion funtzioak bere eginez.

4. BETEKIZUNAK

4.1. BETEKIZUN OROKORRAK

Hautaketa-prozesuetan parte hartzeko baldintza orokorrak dira:

a) Europar Batasuneko estatu kide bateko naziotasuna edukitzea.

Halaber, parte hartu ahalko dute Europar Batasunak hitzartu eta Espainiak berretsi dituen eta langileen joan-etorri librea aplikatzekoa duten nazioarteko tratatuen aplikazio-eremuan sartzen direnek ere.

b) Deialdiaren xede den lanpostuaren berezko zereginak eta funtzioak betetzeko behar den gaitasun funtzionala izatea, hargatik eragotzi gabe Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testuategina onartzen duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan aurreikusitako arrazoizko egokitzeapen- eta doikuntza-neurriak aplikatzea, indarrean dagoen bertsio kontsolidatuan.

Alde horretatik, proba egokitzeko eskaera inskribatzen den unean egin beharko da, oinarri hauen 2.5 apartatuan xedatutakoaren arabera.

c) Hamasei urte edo gehiago izatea, eta nahitaezko erretirorako adina ez izatea.

d) Eskatutako titulazio ofiziala, kasuan kasuko oinarri espezifikoetan adieraziko dena, edukitzea edo haren agiriak jaso ahal izateko eskubideak ordainduta egotea. Atzerriko titulazioen kasuan, homologazioaren egiaztatzea eduki beharko da. Euskal Autonomia

Erkidegoko hizkuntza ofizialetako batean ez beste batean eman den betekizunen edo merezimenduen egiaztagiri oro itzulita eta konpultsatuta aurkeztu beharko da.

e) Indarrean den araubidearen arabera, desgaitasuna edo bateraezintasuna eragiteko legeko arrazoirik ez izatea, hark ematen dion aukera-eskubidea ezertan eragotzi gabe.

f) Oinarri espezifikoetan eskatzen den beste edozein betekizun.

Plazak eskuratu nahi dituztenek baldintza horiek bete beharko dituzte deialdian izena ematen duten egunean, eta betetzen jarraitu beharko dute.

4.2. BERARIAZKO BETEKIZUNAK

Deialdian onartua izateko, hautagaiak jarraian zehazten diren betekizun espezifiko guztiak egiaztatu beharko ditu izena emateko eskabide-prozesuan eta ziurtagiri ofizial bidez.

4.1. Titulazioa

Hautagaitzek titulazio hauetakoren bat izan beharko dute:

- Administrazio eta Finantzetako goi-mailako teknikaria
- Ikus-entzunezko produkzioko eta ikuskizunetako goi-mailako teknikaria
- Zuzendaritzari laguntza emateko goi-mailako teknikaria
- Antzeko titulu homologatua.

4.2. Hizkuntza-eskakizunak

4.2.1. Euskararen hizkuntza-eskakizuna

B2 titulua.

4.3. Gidabaimena

B motako gidabaimena eduki beharko da.

4. EGIN BEHARREKO PROBAK

Nahitaezko proba bat egingo da, eta gehienez ere 100 puntu emango dira. Proba osoa gainditutzat emango zaie gutxienez 50 puntu lortu dituzten hautagaiei.

Lanpostuaren deskribapenari eta oinarri hauetan deskribatutako eginkizun edo zereginei buruzko ezagutza espezifikoak ebaluatuko dira, 2. eranskinean zehaztutako gai-zerrendan zehaztuta daudenak.

Probak egiteari buruzko informazioa garaiz eta behar bezala jakinaraziko da EITBren webgune korporatiboan: <https://www.eitbtaldea.eus/eitbn-lan-egin.php>.

Proba egokitu behar duten hautagaiak (giza baliabide materialak, laguntza eta laguntzak eta parte hartzen duten probak egiteko behar dituen laguntza tekniko edo teknologiko lagunduak izangaiaren eskura jartzeko arrazoizko bitartekoak eta doikuntzak) izena emateko unean eskatu beharko dute, horretarako diseinatutako atalean.

5. EMAITZAK

Egin beharreko proba guztiak amaitu ondoren, hautagaiak kanporatze-probak gainditu baditu, guztizko puntuazioa zenbatuko da. Emaitzak 100 punturekin baloratuko dira gehienez, eta egindako proba bakoitzean lortutako puntuak batuko dira.

Proba osoa gainditutzat emango zaie proba osoan gutxienez 50 puntu lortu dituzten hautagaiei, baldin eta zati bakoitzean gutxienerako puntuazioa (erdia) lortu badute.

6. KONTRATAZIOA

Probak gainditzen dituzten hautagaiak automatikoki sartuko dira deialdiaren xede den kategoriako lan-poltsan, beheranzko hurrenkeran, lortutako behin betiko emaitzen arabera. Lan-poltsa hau aldi baterako kontratazio guztietan aplikatuko da, edozein modalitatetan.

Era berean, lan-poltsa horren zerrendak EITBren webgunean argitaratuko dira, eta EITB osatzen duten pertsonak baino ezin izango dute erabili.

7. DEIALDIAREN DATUAK BABESTEA ETA KUDEATZEA

Arduraduna: Nor da zure datuen tratamenduaren arduraduna?

EITB – EUSKAL IRRATI TELEBISTA – RADIO TELEVISIÓN VASCA ENTE PUBLIKOAK (Q0191001G), tratamenduaren arduradun gisa, langile-hautaketa kudeatzen du, bai beretzat, bai EITB Media, S.A.Urentzat (A48139224). Hala, tratamenduaren erantzule gisa dihardu, eta, halaber, ente publikoa da beretzat egiten duen tratamenduaren erantzulea.

Helbidea: Basurtuko Kaputxinoen kalea 2, 48013 Bilbo, Bizkaia

Telefono-zk.: 94 656 3000

Eskubideak baliatu ahal izateko helbidea: EITBren Aholkularitza Juridikoa, Basurtuko Kaputxinoen kalea 2, 48013 Bilbo (Bizkaia)

Datuen Babeseko ordezkariaren harremanetarako datuak: dbo-dpd@eitb.eus

Helburua: Zertarako tratatzen ditugu zure datuak?

Plazak betetzeko behar diren datu pertsonalak kudeatzeko, eta behin betiko zein behin-behinean bete beharreko plazetarako hautaketa-prozesuen ondoriozko lan-poltsa osatzeko; hautaketa-prozesua gainditu ez duten pertsonen lan-poltsa osatzeko.

Legitimazioa: Zein da zure datuak tratatzeko legitimazioa?

Datuen tratamenduaren lege-oinarria da pertsonen baimena, zeina Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.a) artikulua arautzen baitu.

Hartzaileak: Nori jakinaraziko zaizkio zure datuak?

Datuak ez dira lagako, salbu eta lagatzea beharrezkoa bada lege ezarritako betebeharrak betetzeko edo kanpo-hornitzaileen bidez zerbitzua emateko. Hautagaien eta hautatuen datuak EITBren webgunean argitaratuko dira zenbakizko kode baten bidez.

Nazioarteko transferentziak:

Datuak kudeatzeak ez du esan nahi datu horien nazioarteko transferentziak egingo direnik.

Kontserbazioa: Zenbat denboraz gordeko ditugu zure datu pertsonalak?

Datu pertsonalak lan-poltsan zauden bitartean gordeko dira; urtero eguneratuko dira, eta, poltsatik ateratzen bazara, urtebetez gordeko dira ondoren.

Eskubideak: Zer eskubide dituzu datuak eman ondoren?

Pertsona orok eskubidea du EITBk berari buruzko datu pertsonalak tratatzen dituen ala ez jakiteko.

Interesdunek eskubidea dute beren datu pertsonalak eskuratzeko, datu okerrak zuzendu daitezela eskatzeko, edo, hala badagokio, ezaba daitezela eskatzeko, besteak beste, datuak dagoeneko ez badira beharrezkoak jaso ziren xederako.

Inguruabar jakin batzuetan, interesdunek beren datuen tratamendua mugatzeko eskatu ahal izango dute. Kasu horretan, erreklamazioak egiteko edo horien aurrean defendatzeko bakarrik gordeko ditugu.

Inguruabar jakin batzuetan, interesdunek beren datuak tratatzearen kontra egin dezakete, beren egoera zehatzarekin lotutako arrazoiengatik. Enteak datuak tratatzeari utziko dio, salbu eta ezinbesteko legeko arrazoiengatik edo balizko erreklamazioen aurrean defendatzeko.

Interesdunek EITBri emandako datuen eramangarritasuna eskatu ahal izango dute, formatu egituratu batean —erabilera arruntekoa eta irakurketa mekanikokoa—, bere kasa deskargatu ahal izan ditzaten edo EITBtik beste entitate bati eskualdatzeko.

Interesdunak bere datu pertsonalen tratamenduari buruzko eskubideak balia ditzake arestian adierazitako posta-helbidean edo helbide elektronikoan. Gainera, Datuak Babesteko Agentziari erreklamazio bat aurkez diezaioke, bereziki, eskubideak baliatzean esperotako ordaina jaso ez badu, www.avpd.eus/hasiera/ webgunean adierazitako posta-helbidera edo helbide elektronikora idatziz.

Segurtasuna

Datu pertsonalak ezarritako segurtasun-neurri tekniko eta antolakuntzakoen pean tratatuko dira, hots, Segurtasun Eskema Nazionala arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuan xedatutakoekin.

OHAR GARRANTZITSUAK

- Deialdi honi buruzko informazio guztia EITBren web orrian argitaratuko da: <https://www.eitbtaldeia.eus/eitbn-lan-egin.php>.
- Hautagaiaren ardura da argitaratutako berrien jarraipena egitea (inskripzio-datak, ziurtagiriak ematea, azterketarako deialdia, etab.).
- Prozesuari buruzko kontsultak helbide elektroniko honetara bidali behar dira: eitbdeialdiak@eitb.eus Hori izango da komunikazio-bide bakarra.

1. ERANSKINA. INSKRIPZIOA FORMALIZATZEKO GIDA ESPEZIFIKOA

Jarraian garatutako edukiak informazio-izaera baino ez du, eta oinarrien alderdi garrantzitsuenak laburbiltzen ditu, eta ez du izaera loteslerik ikuspegi juridikotik. Horregatik, oinarri horiek arretaz irakurtzea gomendatzen da, lan-poltsarako proben deialdiaren alderdi guztiak berariaz arautzen eta jasotzen baitituzte.

IZENA EMATEKO PROZESURAKO GIDA:

- Deialdi honetan izena emateko **eskabideak aurkezteko epea deialdiaren oinarrietan ezarritakoa izango da**. Oinarri horiek EUSKAL IRRATI TELEBISTA erakunde publikoaren web korporatiboan daude.
- Ez da onartuko epe horretatik kanpo bidalitako inskripziorik.

Gomendatzen da berrikustea eskaerak bidali direla eta zirriborroan ez direla bidaltzeke geratu. Bidalitako eskabideek bakarrik izango dute prozesuan parte hartzeko aukera.

Xehetasun gehiagorako:

1. Ezinbestekoa da izena eman nahi duzun deialdiaren **oinarriak arretaz irakurtzea**, dokumentu horretan arautzen baita horri buruzko guztia. Izena emateko eskabideak aurkezteko epea deialdi bakoitzaren oinarrietan ezarritakoa izango da.

*** Gogoratu, BIDALI botoia sakatu ondoren, ezin izango duzula aldaketarik egin. Bidalketa horretarako ezarritako epearen barruan egin beharko da.**

2. Izena emateko prozesuaren helburua deialdietan parte hartzeko aukera ematea da. Horregatik, ezinbestekoa da inskripzioa itxiera gisa adierazitako eguna eta ordua baino lehen bidaltzea. Inskripzioa egun eta ordu jakin batean bidaltzen ez dutenek ezin izango dute parte hartu.

3. **EITBren webgunea izango da egiaztagiri guztiak inskribatu eta eransteko bide bakarra.** Ez dira kontuan hartuko arestian aipatutakoa ez den beste bide batetik jasotako inskripzioak eta egiaztapenak.

4. Parte hartu ahal izateko, izena emateko inprimakian eskatzen diren oinarrietan eskatzen diren baldintzei buruzko **eremu guztiak bete** beharko dituzu, kasu bakoitzean eskatzen zaizun dokumentazioa **PDF formatuan** erantsita.

5. Hautagaiei eskatzen zaie interesa duen prozesuaren oinarriak eta egiaztagiriak behar bezala sartzeko gida berriro irakurtzeko, edozein dokumentu gehitu aurretik. Era berean, parte hartzeko interesa duten pertsonen eskatzen zaie **oinarri bakoitzean ezarritako dokumentazioa soilik** eransteko, **ez baita baloratuko oinarrietan jaso ez den dokumentaziorik.**

6. Izena emateko inprimakian, **BETEKIZUNAK** atala bete beharko da: indarrean dagoen NANA, indarrean dagoen gidabaimena, lan-bizitzaren ziurtagiria, sartzeko titulazio ofiziala eta euskara-ziurtagiri ofiziala.

7. Izena emateko epea amaitu ondoren, onarpenaren behin-behineko zerrendak argitaratuko dira, zuzentzeko epe batekin batera. **Epe hori baldintzen ataleko dokumentuak zuzentzeko baino ez da izango.**

8. Izena emateko epea amaitu ondoren, **zuzenketak egiteko epea argitaratuko da**, eta, horiek egin ondoren, ONARTUTAKOEN ETA EZ ONARTUTAKOEN ZERRENDA.

9. Prozesuari buruzko informazio guztia webgunean jakinaraziko da. Hautagai bakoitzaren erantzukizuna da argitalpenak maiz kontsultatzea.

EMISIO ARDURADUNA

ENCARGADO/A DE EMISIÓN

GAI ZERREDA

TEMARIO

1. BLOKEA. TELEBISTA, IKUS-ENTZUNEZKO KOMUNIKAZIO-ZERBITZU GISA

BLOQUE 1. LA TELEVISIÓN COMO SERVICIO DE COMUNICACIÓN AUDIOVISUAL

- Telebista lineala: kontzeptua, bilakaera eta funtzioa egungo ikus-entzunezko ekosistemaren barruan.
- Telebistako ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuak: telebista lineala, eskatutako zerbitzuak, streaminga, FAST kanalak eta plataforma anitzeko banaketa.
- Telebista-kate baten oinarritzako antolaketa: programazioa, emisioa, jarraitutasuna, ekoizpena, informazioa, merkataritza, dokumentazioa, ingeniariaritza, sistemak, eskubideak eta plataforma digitalak.
- Emisio-arloa ikus-entzunezkoen balio-katearen barruan.

- La televisión lineal: concepto, evolución y función dentro del ecosistema audiovisual actual.
- Servicios de comunicación audiovisual televisiva: televisión lineal, servicios a petición, streaming, canales FAST y distribución multiplataforma.
- Organización básica de una cadena de televisión: programación, emisión, continuidad, producción, informativos, comercial, documentación, ingeniería, sistemas, derechos y plataformas digitales.
- El área de emisión dentro de la cadena de valor audiovisual.

2. BLOKEA. EMISIO ARLOAREN ANTOLAMENDUA

BLOQUE 2. ORGANIZACIÓN DEL ÁREA DE EMISIÓN

- Emisio-sailaren funtzioak.
- Programazioarekin, jarraitutasunarekin, publizitatearekin, autosustapenarekin, albistegiekin, ekoizpenarekin, kirolarekin, merkataritzarekin, dokumentazioarekin, trafikoarekin, sistemekin eta ingeniariatzarekin duen harremana.
- Parrilla, eskaleta, emisio-pauta eta minutajea koordinatzea.
- Eguneroko operatiboa: berrikustea, baliozkotzea, jarraipena, gorabeherak eta jaulkipena ixtea.

- Funciones del departamento de emisión.
- Relación con programación, continuidad, publicidad, autopromoción, informativos, producción, deportes, comercial, documentación, tráfico, sistemas e ingeniería.
- Coordinación de parrilla, escaleta, pauta de emisión y minutado.
- Operativa diaria: revisión, validación, seguimiento, incidencias y cierre de emisión.

3. BLOKEA. EMISIOARI APLIKATUTAKO TELEBISTA-PROGRAMAZIOA

BLOQUE 3. PROGRAMACIÓN TELEVISIVA APLICADA A LA EMISIÓN

- Programazio-parrillaren kontzeptua.
- Programazioaren eguneko, asteko eta urtaroko egitura.
- Kontsumo-ordutegiak, target-ak eta logikak.

- Concepto de parrilla de programación.
- Estructura diaria, semanal y estacional de la programación.
- Franjas horarias, targets y lógicas de consumo.

- Programak, serieak, filmak, albistegiak, ekitaldiak, zuzenekoak, bereziak eta emanaldiak.
- Programen arteko jarraitutasuna: jarraitutasun-elementuak.
- Emisio berezien kudeaketa, informazio-aurrerapenak, breaking news, ekitaldi instituzionalak eta kirol-emanaldiak.

4. BLOKEA. IKUS-ENTZULEAK NEURTZEA ETA IKUS-ENTZUNEZKO KONTSUMOA AZTERTZEA

- Audio analogikoaren eta digitalaren oinarriak. Telebistako audientziaren oinarritzko kontzeptuak: rating, share, ikusleak, kontaktuak, estaldura, leialtasuna eta audientzia-profila.
- Telebista linealeko audientziak neurtzea.
- Audientzia ertaina, minututik minutura, audientzia-kurba eta analisia tarteka.
- Audientzia metatua, audientzia geroratua eta kontsumoa beste gailu batzuetan.
- Audientziaren, programazioaren, jarraitutasunaren eta emisio-estrategiaren arteko harremana.
- Plataforma digitaletan eta eskariaren araberrako zerbitzuetan kontsumoa neurtzea.
- Oinarritzko adierazleak OTTn: profilak, kontuak, erabiltzaile bakarrak, bistaratzeak, kontsumo-denbora, engagement, atxikipena eta gehien ikusitako edukiak.

5. BLOKEA. EMISIO, JARRAITUTASUN ETA MINUTAJEKO JARRAIBIDEA

- Emisio-jarraibidearen kontzeptua.
- Parrillaren, jarraibidearen, eskaletaren, minutajearen eta emisio-playlistaren arteko desberdintasunak.
- Emisio-jarraibide baten egitura: programazioaren elementuak.
- Iraupenen kontrola: iraupen nominala, benetako iraupena, iraupen komertziala, iraupen garbia, iraupena publizitatearekin.

- Programas, series, películas, informativos, eventos, directos, especiales y retransmisiones.
- Continuidad entre programas: Elementos de continuidad.
- Gestión de emisiones especiales, avances informativos, breaking news, eventos institucionales y retransmisiones deportivas.

BLOQUE 4. MEDICIÓN DE AUDIENCIAS Y ANÁLISIS DE CONSUMO AUDIOVISUAL

- Fundamentos de audio analógico y digital. Conceptos básicos de audiencia televisiva: rating, share, espectadores, contactos, cobertura, fidelidad y perfil de audiencia.
- Medición de audiencias en televisión lineal.
- Audiencia media, minuto a minuto, curva de audiencia y análisis por franjas.
- Audiencia acumulada, audiencia diferida y consumo en otros dispositivos.
- Relación entre audiencia, programación, continuidad y estrategia de emisión.
- Medición de consumo en plataformas digitales y servicios bajo demanda.
- Indicadores básicos en OTT: perfiles, cuentas, usuarios únicos, visualizaciones, tiempo de consumo, engagement, retención y contenidos más vistos.

BLOQUE 5. PAUTA DE EMISIÓN, CONTINUIDAD Y MINUTADO

- Concepto de pauta de emisión.
- Diferencias entre parrilla, pauta, escaleta, minutado y playlist de emisión.
- Estructura de una pauta de emisión: elementos de la programación.
- Control de duraciones: duración nominal, duración real, duración comercial, duración limpia, duración con publicidad.

- Emisio-doikuntzak: koltxoia, doikuntza-piezak, sustapenak, jarraitutasuna, betegarriak eta ordu-sinkronizazioa.
- Zuzeneko eta faltsu zuzenen kontrola.
- Bertzioak, hizkuntzak, azpitituluak eta audiodeskribapena kudeatzea.

6. BLOKEA. EMISIOA AUTOMATIZATZEKO SISTEMAK

- Emisio-automatizazioaren kontzeptua.
- Playlist, rundown eta emisio-aginduak.
- Parrilla eta programazio sistemen, trafikoaren, MAM sistemen eta abarren arteko integrazioa.
- Kanal anitzeko emisio-sistemak, simulcast.
- Bigarren mailako gertaerak: emisio-elementu grafikoak, etab.
- Erroreak eta gorabeherak kudeatzea eta konpontzea.
- Jarraitutasun-, emisio-, automatizazio-, begirale- eta komunikazio-ekipoen tresnak eta funtzioak.
- Edukien formatuak: zehaztapen teknikoak eta edukien fluxua.

7. BLOKEA. PUBLIZITATEA, AUTOSUSTAPENA ETA MERKATARITZA-JARRAITUTASUNA

- Publizitate-blokeak: egitura, txertatzea eta kontrola.
- Publizitatea, babesletza, telesustapena, produktuaren kokapena, autosustapena eta kanpaina instituzionalak bereiztea.
- Emisioaren, jarraitutasunaren, ekoizpenaren, merkataritza-sailaren eta sustapenaren arteko harremana.
- Araudia eta jarraibide komertzial motak: kanpainak, iragarkiak, babesak eta aipamenak, etab.
- Minutajea eta doikuntzak argitalpen-edukiaren eta merkataritza- eta sustapen-komunikazioaren artean.
- Publizitate-gorabeherak eta horien kudeaketa.

- Ajustes de emisión: colchones, piezas de ajuste, promociones, continuidad, rellenos y sincronización horaria.
- Control de directos y falsos directos.
- Gestión de versiones, idiomas, subtítulos, audiodescripción.

BLOQUE 6. SISTEMAS DE AUTOMATIZACIÓN DE EMISIÓN

- Concepto de automatización de emisión.
- Playlist, rundown y órdenes de emisión.
- Integración entre sistemas de parrillas y programación, tráfico, MAM, etc.
- Sistemas de emisión multicanal, simulcast.
- Eventos secundarios: elementos gráficos de emisión, etc.
- Gestión y resolución de errores e incidencias.
- Herramientas y funciones de los equipos de continuidad, emisión, automatización, monitorado, comunicación...
- Formatos de contenidos: especificaciones técnicas y flujo de contenidos.

BLOQUE 7. PUBLICIDAD, AUTOPROMOCIÓN Y CONTINUIDAD COMERCIAL

- Bloques publicitarios: estructura, inserción y control.
- Diferencia entre publicidad, patrocinio, telepromoción, emplazamiento de producto, autopromoción y campañas institucionales.
- Relación entre emisión, continuidad, producción, departamento comercial y promoción.
- Normativa y tipos de pautas comerciales: campañas, spots, patrocinios y menciones, etc.
- Minutaje y ajustes entre contenido editorial y comunicación comercial y promocional.
- Incidencias publicitarias y gestión de las mismas.

8. BLOKEA. ZUZENKO EMISIOAK ETA EMANALDIAK

- Zuzenekoak: ezaugarriak eta seinale-mota desberdinen kudeaketa.
- Errealizazioaren, ekoizpenaren, emisioaren eta jarraitutasunaren arteko koordinazioa.
- Zuzeneko sarrera- eta irteera-leihoak.
- Atzerapenak, luzapenak, etenak eta ezeztapenak kudeatzea.
- Kirolak, ekitaldi instituzionalak, albistegi bereziak eta zuzeneko programak.
- Grabatzea, berriz emititzea eta ondoren ustiatze

9. BLOKEA. IKUS-ENTZUNEZKO EMANALDI-ETA USTIAPEN-ESKUBIDEAK

- Ikus-entzunezko eskubideen oinarrizko kontzeptuak.
- Ikus-entzunezko edukien ustiapena: sistema lizentziatuak, lineala, catch-up, eskura jartzea, OTT, ustiapen-leihoak, banaketa-eremuak, paseak, eskusibotasuna...

10. BLOKEA. TELEBISTA-EMANALDIARI APLIKATU BEHARREKO ARAU-ESPARRUA

- 3/2022 Lege Orokorra, uztailaren 7koa, Ikus-entzunezko Komunikazioari buruzkoa: ikus-entzunezko komunikazio-zerbitzuen emaileen xedea, aplikazio-eremua eta oinarrizko betebeharrak.
- Ikus-entzunezko merkataritza-komunikazioetarako eta autosustapenerako araudia.
- Adingabeen babesa eta edukien kalifikazioa.
- Irisgarritasuna eta lotutako zerbitzuak.
- Ikus-entzunezko komunikazioaren emaile publikoen berariazko betebeharrak.

BLOQUE 8. EMISIONES EN DIRECTO Y RETRANSMISIONES

- Tipos de directo: Características y gestión de diferentes tipos de señales.
- Coordinación entre realización, producción, emisión y continuidad.
- Ventanas de entrada y salida del directo.
- Gestión de retrasos, prolongaciones, interrupciones y cancelaciones.
- Deportes, eventos institucionales, informativos especiales y programas en directo.
- Grabación, reemisión y explotación posterior.

BLOQUE 9. DERECHOS DE EMISIÓN Y EXPLOTACIÓN AUDIOVISUAL

- Conceptos básicos de derechos audiovisuales.
- Explotación de contenidos audiovisuales: sistemas licenciados, lineal, catch-up, puesta a disposición, OTT, ventanas de explotación, ámbitos de distribución, pases, exclusividad ...

BLOQUE 10. MARCO NORMATIVO APLICABLE A LA EMISIÓN TELEVISIVA

- Ley 13/2022, de 7 de julio, General de Comunicación Audiovisual: objeto, ámbito de aplicación y obligaciones básicas de los prestadores de servicios de comunicación audiovisual.
- Normativa para las comunicaciones comerciales audiovisuales y autopromoción.
- Protección de menores y calificación de contenidos.
- Accesibilidad y servicios asociados.
- Obligaciones específicas de los prestadores públicos de comunicación audiovisual.

11. BLOKEA. EPG, METADATUAK ETA PLATAFORMA ANITZEKO ARGITALPENA

- Programazio-gida elektronikoa: kontzeptua eta funtzioa.
- Programaren metadatuak.
- Telebista lineal eta konektaturako metadatuak, OTT, catch-up eta eskariaren araberako zerbitzuak.
- Emisio lineala, catch-up, plataforman argitaratzea eta eskariaren araberako erabilgarritasuna koordinatzea.
- Emisio lineala eta EITBren zerbitzu digitalak.

12. BLOKEA. TELEBISTA-EMANALDIAREN BILAKAERA TEKNOLOGIKOA

- Emisio-banaketa motak: OTT, HbbTV, streaming, FAST kanalak, TDT...
- HBBTVren bidez gehitutako zerbitzuak: AD Replacement, zeinu-hizkuntza...
- Ikus-entzunezko kontsumo modu berriak eta emisio linealean duten eragina.
- Telebista linealaren bilakaera, eskariaren araberako zerbitzuekin batera.
- Progresiboki integratzea emisioa, argitalpen digitala eta plataforma propioak eta banaketa konektatua.
- Seinaleen banaketa motak: satelitea, lurrekoa, srt...

13. BLOKEA. EITB MEDIA IKUS-ENTZUNEZKO TALDEAREN EZAGUTZA

- Taldearen historia, misioa eta egitura.
- Kanal linealak, plataforma digitalak eta lotutako zerbitzuak.

BLOQUE 11. EPG, METADATOS Y PUBLICACIÓN MULTIPLATAFORMA

- Guía electrónica de programación: concepto y función.
- Metadatos de programa.
- Metadatos para televisión lineal y conectada, OTT, catch-up y servicios bajo demanda.
- Coordinación entre emisión lineal, catch-up, publicación en plataforma y disponibilidad bajo demanda.
- Emisión lineal y servicios digitales de EITB.

BLOQUE 12. EVOLUCIÓN TECNOLÓGICA DE LA EMISIÓN TELEVISIVA

- Tipos de distribución de emisión: OTT, HbbTV, streaming, canales FAST, TDT....
- Servicios añadidos mediante HBBTV: AD Replacement, lenguaje de signos...
- Nuevas formas de consumo audiovisual y su impacto en la emisión lineal.
- Evolución de la televisión lineal en convivencia con los servicios bajo demanda.
- Integración progresiva entre emisión, publicación digital y plataformas propias y distribución conectada.
- Tipos de distribución de señales: satélite, terrestre, srt...

BLOQUE 13. CONOCIMIENTO DEL GRUPO AUDIOVISUAL EITB MEDIA

- Historia, misión y estructura del grupo.
- Canales lineales, plataformas digitales y servicios asociados.